

Uztailak 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.

9:00-14:00

Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko elkarte urtebetez egon da sarekoak diren hainbat herri-riritako ordezkariekin eskola kirolaren inguruko hausnarketa partekatu bat dinamizatzen eta burutzen. Aipatutako herri arteko foro horren lanketaren ondorioz, eskola kirola eraldatzeko tresna bat sortu da. Ikastaro honen helburua, tresna horren bidez, zure herriko eskola kirol ereduaren inguruan hausnartzea eta eraldaketarako aukerak ezagutzea eta eraikitzea izango da. Horretarako, ikastaroak bi lan-ildo izango ditu: lehenengoarekin, zure herriko eskola kirol ereduaren inguruan hausnartzeko aukera eta baliabideak eskainiko zaizkizu. Bigarrean, hainbat herritan martxan dauden eskola kirol eredu ezberdinak ezagutu eta esperientziak elkarbanatuko dira. Horrekin guztiarekin, zure herriko eskola kirola eraldatzeko oinarriak zehaztea eta horietan trebatzea sustatu nahi da.

➤ Norentzat

Herrietan eskola kirolean jardunean aritzen diren hezitzaile, entrenatzaile, koordinatzaile, udal teknikari zein zinegotzientzat; baita gaiarekiko interesa duen ororentzat ere.

➤ Landuko diren gaiak

Ikastaroak izaera teoriko-praktikoa izanen du eta eskola kirolaren izaera eraldatzailea landuko da nagusiki. Finean, eskola kirola eraldatzeko, komunitatea eraldatzea posible delako. Landuko diren gaien artean, ondokoak aurki daitezke: eraldaketa, filosofia, programa, aniztasuna, berdintasuna, tokian tokiko egitura... Sortutako tresna praktikotik abiatuta, oinarri teorikoa sendotu eta, aldi berean, Euskal Herrian martxan dauden eta inspirazio iturri izan daitezkeen esperientzia ilusionagarriak ezagutuko dira.

➤ Metodologia

Ikastaroak izaera teoriko-praktikoa izanen du.

- * **Ainhoa ASTIZ GOÑI eta Maite AZPIAZU ERRAZKIN.** Oinherri-Herri hezitzailearen sareko koordinatzaileak eta eskola kirola herri arteko foro dinamizatzaileak.
- * **Ana REBUELTA ANDRES.** Artaziak kooperatibako kidea eta Tabakalerako Hezkuntza Taldeko hezitzailea. Gorputza, mugimendua eta aniztasuna.
- * **Juan ALDAZ ARREGI.** EHUko irakaslea. Eskola kirola eskirirola; kirola desikasi daiteke.
- * **Beñat LARRAÑAGA URDANPILLETA.** Usurbilgo zinegotzia-Zirimara proiektua. Eskola kirola-aisialdi hezitzailea.
- * **Ibai SAAVEDRA ALONSO.** Pasaia kirol teknikaria. Pasaia Badia Aktiboa-eskola kirolaren jarraipena DBHko nerabeekin.
- * **Rosa LASAGABASTER ARMENDARIZ eta Ismael ZUBIA TXINTXURRETA:** Oñatiko Udal kirol teknikaria eta Eskola Kiroleko Elkar Hezi ikastetxeko koordinatzailea, hurrenez hurren. Oñatiko egitura publiko komunitarioa.